orr0211.qxd 29/10/02 11:56 Página 1

ayuntamiento de Lasarte-Oriako Udala

# kontzertuak
# conciertos

Los Secretos taldearen historia 1978an hasi zen. Orduan, hiru Urquijotar anaiak —Javier, Enrique eta Álvaro, adinaren hurrenkeran— elkartu ziren Canitorekin, eskola garaietatik Enriquek lagun zuen bateria jolearekin, eta Tos taldea sortu zuten. Hainbat diskoetxek gorteiatu ondoren, azkenik 1980an Polydor etxearekin argitaratu zuten lehenengo lana.



Los Secretos-ekoak beste disko bat grabatzeko asmotan zebiltzala, Enrique "Grandes éxitos II" argitaratzeko lanean aritu zen. Bilduma hori 1999ko azaroaren 18an merkaturatu zen. Alabaina —halakoxea da patua—, aurreko gauean telefonoak joka hasi ziren. Izan ere, ordu batzuk lehenago, Madrileko atari batean Enriqueren gorpua aurkitu zuten.

Enriqueren heriotzarekin batera milaka jarraitzaileren ilusioa itzali zen, haren alegutuen zale zirenena. Alegatuok, Enriqueren lanaren ardatz eta arrakasta-iturri izan ziren melankoliari, nostalgiari eta —esan dezagun behingoz— tristurari estu-estu lotuak zeuden. Los Secretos taldearenak egin zuela zirudien: urtetan, konposizioen ardura Enriquek izan zuen, eta haren heriotzaren ostean ez ei zegoen itxaropenik. Hala ere, Alvarok aurrera jarraitzea erabaki zuen, Ramonen eta Jesusen baimenarekin.



Hortaz, Los Secretos taldeko kideak euren buruaz jabetu ziren, eta 2000n argitaratu zuten "A tu lado-Un homenaje a Enrique Urquijo" diskoa. Han bildu ziren hainbat eta hainbat adiskide, elkarrekin, denek gogora ekarri zituzten Enriqueren abestiak, geure-geureak ditugunak, jada herri honen historiaren ataletako bat osatzen dutenak. Gainera, diskoak barnean hartzen du Enriquek grabaturik utzitako maketaren abesti bat.

La historia de Los Secretos se remonta a 1978 cuando los tres hermanos Urquijo —Javier, Enrique y Álvaro, por orden de edad—, se juntan con Canito, batería amigo de Enrique desde el colegio, y forman el grupo Tos. Varias discográficas los pretenden y al final fichan con Polydor.

Mientras se planeaba la grabación de un nuevo disco, Enrique había estado trabajando en la edición del "Grandes éxitos II", recopilatorio que se ponía a la venta el 18 de noviembre de 1999. Pero, ironías del destino, la noche anterior los teléfonos se pusieron a sonar: hacía pocas horas que se había encontrado el cuerpo sin vida de Enrique en un portal de Madrid.

Con la muerte de Enrique se desvanecía la ilusión de miles de seguidores adictos a sus bellos alegatos apegados a la melancolía, a la nostalgia, a la -digámoslo ya- tristeza que siempre sobrevoló su obra y de la que tan buenos resultados supo extraer. El final de Los Secretos parecía inevitable: Enrique había mantenido durante años el peso compositor y sobrevivir a su muerte parecía imposible. Sin embargo, Álvaro, con la aquiescencia de Ramón y Jesús, decide seguir adelante.

Así que Los Secretos se sobreponen y en 2000 publican el impresionante "A tu lado-Un homenaje a Enrique Urquijo", en el que convocan a un montón de amigos para juntos recordar las canciones de Enrique, canciones que desde hace años son de todos nosotros y forman parte de la memoria musical e histórica de este país. Además se incluye un tema de la última maqueta que dejó grabada Enrique.

**los secretos**
azaroak 23 noviembre · 22:00
Casa de Cultura Manuel Lekuona Kultur Etxea
Gazteria eta Festa Batzordea
Comisión de Juventud y Festejos

# enplegua
# empleo

## Lan bila zabiltza?

Goiko galderari baietz erantzun badiozu, hemen duzu lantokia lortzeko aukera on bat. Gazteentzako Informazioaren Udal Bulegoan inon aurki dezakezun enplegu-eskaintzarik handiena dugu. Edozer bilatzen duzula ere, zure prestakuntza eta trebakuntza edozein delarik ere, guk lagun diezazukegu lantokia aurkitzen. Enplegu pribatua zein enplegu publikoa, prestakuntza eta esperientzia handiko lanpostuak nahiz prestakuntza beharrik gabeko lanak. Seguru lagun diezazukegula. Horretarako, nahikoa duzu gure Bulegora etortzea eta kontsultatzea eskueran jarriko dizkizugun dosierrak, zabalak eta astero berritzen ditugunak. Eta, noski, zerbitzu hori guztiz dohainik da. Ez, gero, aukera galdu!

## ¿Buscas trabajo?

Si has respondido sí a la pregunta de arriba, aquí tienes una buena oportunidad para conseguirlo. En la Oficina Municipal de Información Juvenil tenemos la mayor oferta de empleo que puedes encontrar. Busques lo que busques, sea cual sea tu formación y preparación, nosotros podemos ayudarte a encontrar empleo. Desde empleo privado a empleo público, desde puestos de alta cualificación y experiencia hasta trabajos sin cualificar. Seguro que podemos ayudarte. Lo único que debes hacer, es pasarte por nuestra Oficina y consulta los amplios dossieres que ponemos a tu disposición y que renovamos semanalmente. Y, por supuesto, este es un servicio absolutamente gratuito. No te lo pierdas.

# sarea
# red

## Gazteentzako Dokumentazioren eta Informazioaren Euskadiko Sarea

**Lasarte-Oriako Gazteentzako Informazioaren Udal Bulegoa, Gazteentzako Dokumentazioaren eta Informazioaren Euskadiko Sarearen** barruan dagoen doako zerbitzu publikoa da, Eusko Jaurlaritzarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean, Euskal Autonomia Erkidegoko sarea osatzen duten berrogeita hamar zerbitzu inguruen zati dena.
Gure helburua, gazteentzako interesgarri izan daitekeen eta lanarekin, heziketarekin, aisialdiarekin, astialdiarekin eta abarrekin zerikusia duen informazio oro gazteengana hurbilaraztea da.
Informazio hori, Kulturetxeko bigarren solairuan dagoen bulegoan jendea zuzenean atenditu, telefonoz eta posta elektroniko bidez zabaltzen da. Horrez gain, norberak kontsultak egiteko zerbitzua ere badu, gazteei gehien interesatzen zaizkien gaiak lantzeko aukera ematen duena.
Gazteentzako Dokumentazioaren eta Informazioaren Euskadiko Sarearen web gunea honako hau da: www.gazteinformazioa.net

## Red de Información y Documentación Juvenil de Euskadi

La **Oficina Municipal de Información Juvenil de Lasarte-Oria** es un servicio público y gratuito que pertenece a la **Red de Información y Documentación Juvenil de Euskadi** y que, en colaboración con el Gobierno Vasco y la Diputación Foral de Gipuzkoa, forma parte de los, aproximadamente, cincuenta servicios que completan la red en la Comunidad Autónoma Vasca.
Nuestra finalidad es acercar a las personas jóvenes toda aquella información que pueda ser de su interés y que tenga que ver con el mundo del trabajo, la educación, el ocio, tiempo libre...
Dicha información se difunde mediante la atención directa al público en la oficina situada en la segunda planta de la Casa de Cultura Manuel Lekuona, y a través de vía telefónica o por correo electrónico. Además, dispone de un servicio de autoconsulta en el que las personas jóvenes pueden trabajar directamente los temas que más les interesan.
El sitio web de la Red de Información y Documentación Juvenil de Euskadi es www.gazteinformazioa.net

gazte informazioa

# ordutegiak
# horarios

gazteen informaziorako udal bulegoa
oficina municipal de informacion juvenil

Astelehenetik ostiralera Lunes a viernes 11:00-13:00/17:00-20:00

**Casa de Cultura MANUEL LEKUONA Kultur Etxea**
Geltoki 18 - 20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 37 61 81/91 - Fax: 943 37 61 92
gazteinfo@lasarte-oria.org
www.lasarte-oria.org




www.lasarte-oria.org

Casa de Cultura Manuel Lekuona Kultur Etxea

# bekak becas

## 40 IKASKETA- ETA IKERKETA-BEKA
## 40 BECAS PARA ESTUDIOS E INVESTIGACIÓN

**Jesús Gangoiti Barrera Fundazioa**
Tfno.: 94 4215754

**Eskakizun:**
Espainiako herritartasuna duen goi-mailako tituluduna izatea.
**Ezaugarr.:**
Gai eta arlo desberdinei buruzko ikasketak eta ikerketak egiteko bekak: INGENIARITZA, MERKATARITZA, HEZKUNTZA, EKONOMIA, MEDIKUNTZA, FARMAZIA, BIOKIMIKA ETA MUSIKA.
**Epea:**
Azaroak 8.

**Fundación Jesús Gangoiti Barrera**
Tfno.: 94 4215754

**Requisitos:**
Titulados universitarios superiores de nacionalidad española.
**Contenido:**
Becas para realización de estudios e investigación sobre diferentes temas y áreas: INGENIERÍA, COMERCIO; EDUCACIÓN; ECONOMÍA; MEDICINA; FARMACIA; BIOQUÍMICA Y MÚSICA.
**Plazo:**
8 de noviembre.

## EUSKARAZKO LITERATURA-SORKUNTZARAKO IV. JOSEBA JAKA BEKAK
## IV BECAS JOSEBA JAKA A LA CREACIÓN LITERARIA EN EUSKERA

**Euskalgintza Elkarlanean Fundazioa**
Tolosa Etorbidea, 103 1D
20009 Donostia
Telefonoa: 943 219427
Faxa: 943 219427
www.elkarlaneanfundazioa.org

**Baldintzak:**
Aurreko ekitaldietan beka hauek jasota ez izatea.
**Diru-kopurua:**
Beken zenbatekoa 70.000 eurokoa izango da, ondoren adierazten den bezala banatuta:
-14.000 euro, nobelentzat.
-7.000 euro, poesientzat.
-7.000 euro, entseguentzat.
-7.000 euro, gazte-literaturarentzat.
**Edukia:**
Helburua da euskararen eta euskal kulturaren sustapena eta garapena modu eraginkorrean bultzatzea. Interesatuek curriculum laburra aurkeztu behar dute eta lanaren proiektua eta lagin bat ere entregatu behar dituzte (10 orritik 15 orrira bitartean poesian eta haur- edo gazte-literaturan eta 20 orritik 25 orrira bitartean nobela edo entseguen kasuan).
**Epea:**
2002-12-19

**Fundación Euskalgintza Elkarlanean**
Tolosa Etorbidea, 103 1D
20009 Donostia-San Sebastián
Tlno: 943 219427
Fax. 943 219427
www.elkarlaneanfundazioa.org

**Requisitos:**
No haber sido beneficiario de estas becas en ediciones anteriores.
**Dotación:**
La cuantía asciende hasta una cantidad de 70.000 euros repartidos de la siguiente manera:
-14.000 euros para novelas.
-7.000 euros para poesía.
-7.000 euros para ensayos.
-7.000 euros para literatura juvenil.
**Contenido:**
El objetivo es el de impulsar de manera eficaz la promoción y el desarrollo de la lengua y la cultura vascas.
Los interesados deberán presentar un breve curriculum, y presentación del proyecto y muestra del trabajo (entre 10 y 15 hojas para poesía y literatura infantil-juvenil y entre 20 y 25 si es para novela o ensayo).
**Plazo:**
19-12-2002

## BEKA-ASTEKARIA
## DOSSIER SEMANAL DE BECAS

**Lasarte-Oriako Gazteen Informaziorako Udal Bulegoa**
Tfno.: 943 376181/2

Zure prestakuntza edota esperientzia gehitzeko laguntzarik behar baduzu, GIBn beken dossier berri bat daukagu. Bertan hainbat beka lortzeko baldintzak kontzultatu ahal izango dituzu. Dossierra astero berrituko da, eta heziketa-mailaren eta bekaren helburuaren arabera dago sailkatua, beraz komeni zaizun bekaren informazioa oso azkar eta eguneratua aurkitu dezakezu.

**Oficina Municipal de Información Juvenil de Lasarte-Oria**
Tfno.: 943 376181/2

Si buscas complementar tu formación y/o experiencia mediante una ayuda, la OIJ dispone de un nuevo dossier en el que podrás consultar las condiciones para optar a numerosas becas. El dossier se renovará semanalmente y está clasificado por el nivel formativo y objeto de la beca, con lo que tienes a tu disposición una búsqueda rápida y actualizada de la beca que te interesa.

# enplegua empleo

## 6 UDALTZAIN-LANPOSTU
## 6 PLAZAS DE AGENTES DE LA POLICIA MUNICIPAL

**Irungo Udala**
Tfno.: 943 649200
www.irun.org
sac.010@irun.org

**Eskakiz.:**
Eskola Graduatua, lehen mailako lanbide-heziketako titulua edo titulu baliokide bat izatea. B, A eta BTP gidabaimenak izatea. Euskarako 2. hizkuntza-eskakizuna. 18 urte izatea eta eskaibde-orriak aurkezteko epea amaitzean 32 urte beteta izatea.
Gizonezkoek gutxienez 1,70 mko altuera eta emakumeek gutxienez 1,65 mkoa izatea.
**Ezaugar.:**
Udalean 6 udaltzain-lanpostu oposizio-lehiaketa librearen sistema bitartez betetzeko deialdia.
**Epea:**
Azaroak 2.
**Iturria:**
2002-08-29ko 162. GAO, 15328. or. / 2002-09-20ko 178. GAO, 16445. or. (oinarrien aldaketa) / 2002-10-08ko 241. BOE, 35555. or.

**Ayuntamiento de Irún**
Tfno.: 943 649200
www.irun.org
sac.010@irun.org

**Requisitos:**
Estar en posesión del título de Graduado Escolar o formación profesional de primer grado. Estar en posesión del permiso de conducir B, A y BTP. Perfil lingüistico 2 de euskera
Tener 18 años y no haber cumplido 32 a la fecha de finalización de presentación de instancias.
Tener una estatura mínima de 1,70 m los hombres y 1,65 m las mujeres.
**Contenido:**
Convocatoria mediante el sistema de concurso-oposición libre de 6 plazas de agente de la policía local para el Ayuntamiento.
**Plazo:**
2 de noviembre.
**Fuente:**
BOG 162 del 29-08-2002, pág. 15328 / BOG 178 del 20-09-2002, pág. 16445 (modificación de bases) / BOE 241 del 08-10-2002, pág. 35555.

# lehiaketak concursos

## ARGOIAK ELKARTE KULTURALAREN XII. LITERATURA-LEHIAKETA. IRUN 2002
## XII CERTAMEN LITERARIO ASOCIACIÓN CULTURAL ARGOIAK IRÚN 2002

**Argoiak Elkarte Kulturala**
Victoriano Juaristi, z/g
20304 Irun
Telefonoa: 943 620621
www.argoiak.com

**Baldintzak:**
Lehiaketan Gipuzkoako eta Hendaiako jendeak parte har dezake.
**Diru-kopurua:**
Saritutako lanek 300,50 euro jasoko dituzte.
**Edukia:**
-Lanak originalak eta argitaratu gabeak izango dira.
-Titular bakoitzeko hiru lan bakarrik onartuko dira.
-Espezialitateak: POESIA, IPUINA eta NOBELA.
-Euskarazko nahiz gatelaniazko lanak.
-Lanak makinaz, lerroune bikoitzarekin eta orrialde bakarrean idatzita aurkeztu beharko dira. Lan bakoitzeko hiru kopia aurkeztu behar dira. Lanak lemapean eta egilearen datuak jasoko dituen kartazal itxi batekin entregatuko dira.
**Epea:**
2002-12-15

**Asociación Cultural Argoiak**
Victoriano Juaristi, s/n
20304 Irún
Tfno: 943 620621
www.argoiak.com

**Requisitos:**
El certamen está abierto a Gipuzkoa y Hendaya.
**Dotación:**
Los trabajos ganadores se premiarán con 300,50 euros.
**Contenido:**
-Las obras serán originales e inéditas.
-Se admitirán solamente tres obras por titular.
-Especialidades: POESÍA, CUENTO y NOVELA.
-Obras en castellano o euskera.
-Los trabajos deberán presentarse mecanografiados a doble espacio por una sola cara y por triplicado, bajo lema y acompañado en sobre cerrado los datos del autor.
**Plazo:**
15-12-2002

# lehiaketak concursos

## ENPRESA-EKIMENEN I. LEHIAKETA
## I EDICIÓN. CONCURSO DE INICIATIVAS EMPRESARIALES

**Behargintza eta Mungialde, Txorierri eta Uribe-Kostako Garapen Agentzia**
Tfno. 94 6741206

**Ezaugarr.:**
Mungialdea, Txorierri eta Uribe-Kostako Behargintzek jarri dute martxan lehiaketa hau, enpresa bilaka daitezkeen enpresa-ideiak bultzatzeko asmoz.
**Epea:**
Azaroak 29.

**Behargintza eta Mungialde, Txorierri eta Uribe-Kostako Garapen Agentzia**
Tfno. 94 6741206

**Contenido:**
Los Behargintza de Mungialdea, Txorierri y Uribe-Kosta, ponen en marcha este concurso con el fin de apoyar e impulsar las ideas empresariales que sean susceptibles de consolidarse en una realidad empresarial.
**Plazo:**
29 de noviembre.

## GAUR EGUNGO ESKULTURA, GRABATU ETA PINTURAKO III. LEHIAKETA
## III CONCURSO DE ESCULTURA, GRABADO Y PINTURA COMTEMPORANEA

**Barakaldoko Udala**
Tfno.: 94 4789261
www.barakaldo.org

**Ezaugarr.:**
Andreek egindako artelanak zabaltzeko gaur egungo Eskultura, Grabatu eta Pinturako III. Lehiaketa. Aurkeztutako obrek 2001 eta 2002 urteetan egindakoak izan beharko dute. Obren gaia andreen ekarpen historikoa edota historian zehar gizartearen arlo ezberdinetan andreek egindako ekarpena izango da.
**Epea:**
Azaroak 9.

**Ayuntamiento de Barakaldo**
Tfno.: 94 4789261
www.barakaldo.org

**Contenido:**
III Concurso de Escultura, Grabado y Pintura contemporánea para difundir la obra artística de las mujeres. Las obras presentadas deben haber sido realizadas dentro de los años 2001-2002. El tema de las obras deberá girar en torno a la aportación histórica de las mujeres en el espacio público.
**Plazo:**
9 de noviembre.

## XIII. ARGAZKI-LEHIAKETA NAZIONALA
## XIII CONCURSO NACIONAL DE FOTOGRAFÍA

**José Matrán Argazkilari Zaleen Elkartea; José Matrán Kultura-Etxea**
Tfno. 968 413305

**Ezaugarr.:**
Lanen gaia eta teknika egileak aukeratuko ditu (koloretan edo z/b), ez da gardenkirik ezta manipulazio digitalik ere onartuko. Egile bakoitzak lau argazki aurkeztuko ditu lema bakarrarekin bilduak.
**Epea:**
Azaroak 23.

**Asoc. de Fotógrafos Aficionados José Matrán; Casa de Cultura José Matrán**
Tfno. 968 413305

**Contenido:**
Los trabajos serán de tema y técnica libre (color o b/n), no se admitirán transparencias ni manipulaciones digitales. Cada autor presentará cuatro fotografías recogidas bajo un solo lema.
**Plazo:**
23 de noviembre.

## ENCARNA LEON KONTAKIZUN LABURREN II. LEHIAKETA
## II CERTAMEN DE RELATO CORTO ENCARNA LEÓN

**Melillako Hiri Autonomoa**
Emakume Sailordea
General Prim, 2 - 52001 Melilla
Telefonoa: 952 681950

**Diru-kopurua:**
- Lehen saria: 2.000 euro.
- Bigarren saria: 1.000 euro.
**Edukia:**
Gaia librea izango da. Obrek gaztelaniaz idatzitakoak izan behar dute. Kontakizunek 5 eta 15 folio arteko luzera izango dute.
**Epea:**
2002-12-31

**Ciudad Autónoma de Melilla**
Viceconsejería de la Mujer
General Prim, 2 - 52001 Melilla
Tfno.: 952 681950

**Dotación:**
- Primer premio: 2.000 euros.
- Segundo premio: 1.000 euros.
**Contenido:**
La temática será libre. Las obras deberán estar escritas en castellano. Los relatos tendrán una extensión de 5 a 15 folios.
**Plazo:**
31-12-2002